



# "PRINCIPE DE VIANA"

SUPLEMENTO MENSUAL DE LA REVISTA. DESTINADO AL FOMENTO DEL VASCUENCE

DIPUTACION FORAL DE NAVARRA

DELEGADO DIPUTADO: M. J. URMENETA

Bigarren Urtea • Pamplona - Abril-1967-Jorrailla-Iruña • 14'gn. zenbakia

DIRECTOR: J. E. URANGA



# BND LEYRE

## Gure Diputazioa berria



Ona emen gure Naparroko Fueroan Diputazio berri osatzen duten gizonak.

Jarriak, ezkerretik eskuinera: Uhartea jauna den Diputazioaren Lendakaria, Naparroko Gobernadorea, eta Marko Jauna.

Txutik: Uriz jauna, Naparroko Sekretarioa, Fortun, Urmeneta, Asiain, Bañon eta Elizalde Diputado jaunak.

Diputazio onek bere eginbidea Naparroaren onerako bete dezala.

Leyre, ez da izen aundi bat bakarrik; izatez ere, Najar-erreinu zahar onen bihotz eta muña izana da. Esan beharrik ez, egun onak eta txarrak, denetatik ikusi dituela bere denboran. Gure erriak bezala.

Asiera ilunak ditu Leyreko frailetegiak; goizeko lañoak estaltzen duen txoria bezala galtzen dira urrunean bere egunak. Ori bai; aspaldikoa da! Naparroan dugun zaharrena. Eliz azpian agertu diren arri-landuak bederazi garren mendekoak izan laizke; eta zaharragoko zimenduak ba ditu inguruan.

Naparroko erregeak beren begiko niña bezala begiratzen zuten Leyre. Zenbat eta zenbat ondasun aien eskutatik artuak! Amaikagarren mendeian izan zuen komentu onek bere indar eta izen aundiaren gallurra.

Europa guzitik heldu ziren bideak Santiyo aldera begiratzen zuten orduan; eta Leyre'k bere eskutan zituen bai Orriaga, Erronkari eta Somport aldeko ostatuak. Santa Engrazia ere, beste aldean, berena zen.

Nunilo eta Alodia neskatx santuen gorputzak gordetzen zituzten elizan; eta Birila, bizardun, txoriaren kantarekin lokartu zenak aipaldi frango izan du bazter guzitan.

Denbora aiek joan ziren eta, lengo mendean Leyre'ko eliza pollita ardi borda eta artzai txabola bezala artu zuten jendeak; gure errege izandakoen ezurrak, anka azpian zabiltsan eta, komentuko paretak lur jo zuten.

Gaur gure Diputazioari esker, eta «Principe de Viana»koen bidez, Leyre goratu eta apaindua da. Len bezalaxe, otoiitz etxe eta bazter paketsu.

Vazquez de Mellak ziona: «Naparroko Eskoriala dela! Ez ori bakarrik; komentu baño geiago, Errege-alki, Elizartzairenen jauregi, gudarien gaztelu ormatua. Erri-batzarre nagusien etxe ta, Eliz-erabakien artzeko lekua. Eta jakindurizko argi dirdiratzale aundial!».

## Xavier eta Naparroko mutilen billera



Epailaren 12'ean gizonetakoak Xabierren beren urteroko billera izan zuten. No lanai ere ogeita bost mila bildu ziren. Bear bada geienak oinez joandakoak. Orrelako ibilketa neketsoak naita naiez ekarriko du frutua Jaunaren gorapiderako eta animen salbaziorako.

# LEYRE'KO ISTORIO XAHARRA



(1963'ko abenduan, "Luzaide" izeneko aldizkariak argitaratu lan au ekartzen dugu. Bere egilea, Feli Setoain, Madrilen bizi da; bana ez ditu ahanzten Luzaidoko txoko politak. Behar ere!)

Duela zombait mende bizi zen Leyren fraile kartsu bat komentuko buruzagia. Bere pentsaketa eta otoi-tzetan, zerua nola ote zen nahiz konprenitu ari zen 'ardura. Bana etzezaken konpreni!

«Nola ote zen zorion hura? Beti, beti... eta betiko zoriona! Nola ote ziren doatsuak, beti doasu; itzal bat gabe beren zorionean!

Egun batez joan zen mendiar buruz, oihanean egiteko bere otoi-tza, xorien artean; eta nun entzuten duen txori errexiñol baten xoragarriko kantua... Gure frailea geldiegeldia an dago xorian kantuari be-

harriak zabalik eta, ezin sinetsiz bezala. Nola atera zezaken ain gorputz ttipitik, ain kantu miresgarria?

Etzuen gehiago otoi-tzik, ez pentsaketarik gogoan. Aski zuen bere txoriaren kantuari ago zabalik egoitea, Zenbat denbora?

Noizbait xoria ixiltzen da eta Virila (au zen frailearen izena), abiatzen da bere komentura. Arritzen asia da: Zer sasi dira bidekoak? Hura jitean etziren an! An dabila, ez jakin nundik atera eta azkenean atzeman du komentua. Bana ez ote du bere komentua! Ez du gogoan etxe hura inoiz ikusirik. Zer gertatzen da?

Dena den, heltzen da eta ezkil ttipia inarrostean. Ezagutzen ez duen fraile gazteño bat atera zako idekiztera:

—Zer zinuen, jauna?

—Zer nahi dutan! Sartu... ene etxean sartzea! Ez nauzia ezagutzen?

—Nik... ez, jauna!

—Bainan, ez ote naiz ni emengo buruzagia?

—Zu, emengo apez nagusia? —arritua da fraile gaztea—

—Bai; ni naiz... Virila.

—Virila erraiten duzu? Barkatu, jauna; gure nagusiak ez du izen ori (eta lasterka badao norbaiten bila).


Gaizo Virilak ez du fitxik konprenitzen. Goizean etxetik atera ta, itzultzean beste buruzagi bat, ba, komentuan! Eta jin da barnetik nagusia:

—Barkatu, jauna; nola erran duzu dela zure izena?

—Virila. Emengo buruzagia.

—Zu al zira Virila, duela berrehun urte etxetik atera zena? Liburuak erraiten dute etzela gehio sekula itzuli. Uste izan zuten otsoak garbituko zutela. Zer bertatzen da?

—Orai dut sentitzen Jainko onak emaiten daitan ikasgaia! Berrehun urte egin ditut xori baten aditzen, ustez eta oren bat zen. Ala da betiko zoriona! Eta bi egunen buruan joan zen zerura.



«AUÑAMENDI»

## «1967'go Iñaki ta Mari Karmen»

Gaztediari buruz asko ta askoren iritziak entzuten ditugu gaur. Gai on-taz zer edo zer esaten ez duan «Eguneroko» edo «Aldizkari» (Revista) rik ez da izan go. Alde, batzuek... Aurka, besteak... Nora jo ez dakitela, bide gurutzean, besteak. Batzuek eta besteak, auek eta oiek alde edo kontrako arazoak sortzen dituzte. Gaurko edo lengo gazteak ziran onenak jakin nairik burrukan ibiltzea, txorakeria iruditzen zait. Garai bakoitzeko gizadiaren ontasun edo txartasunaren neurria eman lezaken «termometro» antzeko tresnarik, eguzkipean ezpaita oraindik sortu. Ta, ezta sortuko ere! Txotxoloburruka ortan ibiltzearen orde, gaurko gaztediak ditun alderdi onei begirata eta alderdi on oiek jorratzen saiatzea ez ote litzake obe?

Gaztedi orrek gizadiaren arazo edo problemai buruz zer pentsatzen duan... zarragoengandik zer espero duan agertzen saiatzea ez al legoke ongi?

Egunkari edo «diario» baten bidez, batzuen eta besteen iritziak eta kez-  
kak josten, elkartzten saiatu nai genuke. Aurreko gizadi edo «jenerazio» eta gaurkoaren arteko koskak berdintzen, zurrinbilloak betetzen saiatzea ederra izango litzake. Oritxe deritzait onuragarrien eta «positivo»ena.

«1967'go Iñaki eta «Mari Karmen» deitu genezaken txoko ontan, batzuen eta besteen iritziak bilduz, (guztiak on bai zaizkigu) ortantxe saiatu nai genuke.

Eztabaida eta alkarrizketa batzuek sortuko ba-lira... obe!

### 1967'GO OTSAILAREN 5'EAN

Nere iritzi eta asmoak, alaitasun eta kezak egutegi ontantxe jartzea erabaki dut. Nik nere barru-barruan darabiltzikidan gogoetak ementxe agertu nai nituzke. Nere jokabideari eta gaurko gizadiaren artu-emaneri buruz egindako alkarrizketa bat izatea nai nuke egutegi au. Nere asmo ontan iraungo ote dut? Ala nai nuke beintzat.

### 1967'GO OTSAILAREN 19'AN (IGANDEA)

Beste gaurko gazte asko ta asko bezala ibillaldi bat egitera joan naiz. Nora...? Erri txiki batera, Gure beste edozein erriren antzeko erri txiki batera. Nere adiñ inguruko gazte bat edo bestekin artu-emanak izan ditut. Gure erri txikitetan igandea zertan nabaritzen ote da?

Jainkoak igandea beretzat aukeratu duala egia da. Baño gorputzak itxoi-teko, deskantsatzeko ere egin duala ezin ukatu. Ta gorputzak itxoitea, asteaz baño obekixago jatea da... asteaz baño geixago dibertitzea... asteaz baño artu-eman geixago izatea... asteaz baño alaiagoxago bizitzea...

Ta nik erri txiki ortan ikusi nuana auxe da: tabernan asteaz baño jende geixago... errian gora ta beera, jiraka ta biraka neska geiago, kale-zokoetan marmarrean edo... emakume geiago...

Artu-emanak izan nituan mutil aietan arazo edo problemarik ez nuan ikusi. Etzutelakotz edo ikusteko jakintasun adiñera iritxi ez diralakotz ote zan? Zerbait palta ba-lute bezala alde batera eta bestera begira zebiltzen neska aiek zorionsu ote dira? Gizartean erditxi liteken zoriontasun malla arapatu ote dute alegia?

Gure erri txikitako «Igando arratsaldea» giza-arazo edo problema aundi xamarra ez ote da?

Burutsu-antzeko eta adiñetsu askorengandik prankotan entzun dugun «guk orrenbeste ez gendun egiten...» ori asko ote da? Zezenari adarretatik elduta benetan ikusi bearreko zerbait ez ote da? Gure erri txikitako arazo eta problema prankoren iturria ementxe dagola iruditzen zait. Norbaitek argitasun pixka bat ez ote dit emango?



## ELIZAREN ITZA

# ELIZ BATZAR NAGUSIA ETA KRISTAU BATASUNA

Elkarrengana biltzeko alegiñak, Eliz osoak egin bear ditu, artzaiak bezela kristau soillak ere, naiz egunoroko kristau bizikeran naiz teologiko edo eliz kondairako azterketan arretik aundienarekin, arreta onek adierazten du alde bateko eta besteko kristauak elkarrengana biltzeko gogoia, eta oso-osoko batasunera irixteko bidea da, Jainkoak lagun.

Elizaren eraberritze osoa Jainkoaren deyarri gero eta zintzogo jarritzean datza, ortaz, batasunera eltzeko itxillu ori. Kristok lur ontako Elizari era-berritze bat eskatzen dio, gizonen eta lurreko iraskun edo instituzio dan aldetik, beti beraka irristatzen baita, beraz, zenbeit gauz ez badira bear bezin zintzo gorde, oiturak, gora-bera bere-xiak edo sinisgaia azaltzeko erak dirala ta, lenera, iturrira itzuli bear dira zuzen eta bidez, sinismenaren osotasun eta garbitasuna ukitu gabe.

Eraberritze onek izugarriko garrantzia du elkargantzeko auzi ontan. Elizaren bizimoduan sortu diren zenbeit era berri, ots, Biblia eta Liturgiaren aiera, Jainkoaren itzaren eta dotriñaren erakusketa, kristau soillen eliz-lanketa, religiosoren era berrik, ezkontzaren gogoketa, Elizaren irakasbide eta jokera gizarte auzietan (cuestión social), artu bear ditugu asierako urrats eta aztarnak bezela, gero-ko aurrerapide bete-betearan azalgarri, elkartzeko lantegian.

Egizko elkargoa irixteko bakoitzak bere burua azpikoaz gañera irauli bear du, ziñez, animaren berritetik, berekoikeria itozetik, maitasuna oparo banatzetik sortzen da eta azitzen da elkarrengana biltzeko irriki eta gogoia. Orrengatik Espiritu Santuari eskatu bear biziki gerekoikeriaren ukapena, apaltasuna eta xalotasuna gure serbitzuetan eta beste edozein sendeeri esku zabalez laguntzeko grazia. «Beraz, Jainkoagatik giltzapean nagon Paulo onek eskatzen dizuet zuei egindako deyarri dagokionez ibiltzeko, oso apal, otzan eta yasankor, maitagarri elkar eramaten, pake lokarriz gogo-batasuna eukitzeko zurt, soin bat eta gogo bat izanez» (Ef. 4, 1-4) apaizgintzaz jantzirik daudenei, batez ere, zuzentzen die Paulo Apostoluak eskari au, Kristoren egiteko bera luzatu dezaten «ez da morroiak eukitzera etorri bera ere, morroi izatera eta bere burua askorengatik ordainetan ematera, baiño» (Mt. 20. 28).

## XABIERKO IBILLALDIA

San Franzisko Xabierkoa dugu euskal semerik jatorrena. Mundu guzian, bear bada, Naparroan baño ezagunago zan orain urte gutxi. Jaunari esker, urte auetan arenganako jaiera ta maitasuna gure artean ere aziaz dijoaz. Epaillaren lau egunetik amabigarrenera egiten den Bederatzi urre-neko egunetan yendetza gogorak biltzen diran bertan, urtetik urtera geiago. Aurten Epaillaren laugarrenean bildu ziren Moja eta Praileen gurasoak Xabierko Franzisko Santuaren aurrean Elizak egiten zien omenaldi eta ezaugarriak artzeko. Bana ez beste iruen bat milla izango ziren Xabierren bildu zirenak.

### GIZONEN IBILKETA

Kanpotarra zen jaun hura. Gero jakin zen «periodiko» aundi bateko idazlea zela.

—Zer dago Xabierren? galdegin zuen.

—Eta zer egiten duzue an?


—Meza entzun, «zakua ustu», eta Gure Jauna artu.

—Eta gero...?

—Ezer ez. Gutxi iduritzen zaizu?

—Nere begiz ikusi ezbanu eznuen sinetsiko munduan olakorik bezela.

Fedeak alako gauzak egiten ditu. Eta gu Xabierren odoleko fededunak gera... edo bear ginuke izan.



### NESKATXEN BILLERA

Epaillaren 5'ean izan zuten emakumezkoak Xabierren beuen billera. Geurok ikusi genituen bezperan oiñez zijoazela franko. Oraindik jatorrak badaude bazterretan!

Amarren bat milla izango zirala bildu ziranak, zioten egunerokoek.



## NAPARROKO BERRIAK

Con la jura de la nueva Diputación puede hacerse un resumen de los tres años últimos de actividad en Navarra, tanto por parte del Estado como de las Corporaciones.

El progreso industrial es evidentemente extraordinario. Existe también la satisfacción de que la industria se ha repartido por toda la geografía de Navarra, creando una especie de focos comarcales que eviten la emigración a la Capital.

En la política de carreteras están completándose las reformas del ángulo Echarri-Aranaz-Pamplona-Tafalla, y el tramo de Tudela a Cortes, que son los ejes de máxima circulación. Sin contar otras muchas obras menores.

Se ha trabajado profundamente en Urbanismo, preparándose el crecimiento de la Zona de

Pamplona, Tudela, y otras muchas localidades en crecimiento.

Eu Educación resalta la expansión de la Universidad, la creación del Instituto de Tudela, la iniciación de Organismos de segunda enseñanza menores (como el de Marcilla inaugurado el pasado día 27 de marzo) y la iniciación de las concentraciones escolares.

Se van mejorando mucho las instalaciones sanitarias.

También han adelantado las instalaciones turísticas, la televisión, y otras manifestaciones del desarrollo.

Parece ser que los esfuerzos futuros se centrarán en la agricultura y la ganadería, para dar a Navarra el necesario equilibrio entre unas y otras fuentes de riqueza y trabajo.

# ELIZONDO'KO JAIARI

(Arozamenak jarriak)

— 1 —

Ilbeltzak amabosta igande eguna Elizondo ortara salto egin deguna, beste iru lagunekin nintzan aruntz juna ai zer egualdia tokatu zaiguna!

— 2 —

Goizian Donostian autobusa artuta zortzietako an giñan barruan sartuta, goizian seietako oitik altxatuta amarretako Elizondon piskat gosetuta.

— 3 —

Gu aruntz juaterako gizon bat zeguan kamio baztarrian gure esperuan, artuta ostatu batera eraman giñuan, ederki gosaldtu gendun alkarren onduan.

— 4 —

Otza aundia zegoen egun-sentitikan alare jua giñan aruntza pozikan, Elizondon eztago lagunak faltikan ondo portatzen dira oik aspalditikan.

— 5 —

Uztapide, Lasarte ta Lazkao txiki, zein izandu giñaden goguan eduki, Arozamena oiekin moldetzen da egoki alkar zirikatuz aitu gera ederki.

— 6 —

Antxitoneko ostatun gendun bazkaria jateko naikua ta dotore jarria, zapa bikañarekin ondoren jakia juaten dan guzientzat badago tokia.

— 7 —

Bazkaldtu gendunian lanera juateko denbora izan gendun lasai egoteko, kafe ta kopatxua artu bitarteko Klemente gendun giari noiz jua esateko

— 8 —

Izeta jauna gendun lan guzik berritzen asko daki orrek ta ni eznaiz arritzen, oien baztarrian pozik gera ibilitzen ta Klemente Ezkurdia puntuak jarritzen

— 9 —

Plazan bazan jendia asko etorria nunbait bazaukaten bertso egarria, guk ere egin gendun al gendun guzia alare Euskararentzat ezta geiegia.

— 10 —

Ordu t'erdi inguru aritu giñanak egin artian agindu zizkiguten lanak, Izeta ta Klemente agintzeko juanak pozik egin giñuzen esandako danak.

— 11 —

Elizondoko gende ta bere ingurukak egun artan asko ziren aruntz juandakak, Urtetan sartuak eta gazte sasoiak oraindik ere badira gure modukak.

— 12 —

Oiek jarri zuten jaia etzan berriketa, gure orrela pozik juaten geradela, nola agindu biar dan ondo dakitela, Gora Klemente zarra ta Mariano Izeta!

## 1966'go Napparoko Bertsolarien Seigarren Azken Txapelketaren Zazpi Agur-Bertsoak



Yoan den Azaroko amairugarrean Iruñe'ko Gyarre Teatroan Nappar Bertsolarien Azken Txapelketa ospatu zen. Bertsolari bakoitzak agurrezko bertso bat kantatu zuen. Bertso oiek Maipuruak etzituzten Txapelketarako kontuan artu, beraz puntu-konturako balio etzituzten bertsoak izan ziren. Gaur emen zazpi bertsoak argitaratzen ditugu.

### Martin Orejak

Agur danori eta egun on bat opa dizutet benetan, gure biotzak poztu oi dira gaur bezelako egunetan. Oitura onak ta euskera gorde mingaña ta biotzetan oi eskatzen det euskaldunari aberats eta pobretan, auek gure erruz ilko balira ilko giñake zorretan.

### Bautista Madariagak

Oinbeste anai eta arreba ia erorian lurrera zertarako dan, nik esango det, gaurko gure etorrera: nerez propio etorria naiz Arantzatik Gayarrera danok euskeraz egin dezagun gaurko ontatik aurrera

### Manuel Uizik

Iruña ontan egun eder bat gaur antolatu digute, alaitasunez etorri gera gu bizi arren aparte: saloi ederr au euskaldunez da goitara gaur dena bete anai arreba biotzekuak zer moduz bizi zerate?

### Angel Aldazek

Agurtutzeko agindu naute t'orra agurra danori, agintariak, euskaldun jator

gure anai arrebari. Biotz-biotzez eskatzen diot gure Zeruko Amari guztiontzako igor detxala Zerutik laguntza ugari

### Manuel Arozamenak (gaztea)

Ekinbearra arkitzen zaigu agindutako lanari derrigorrean jarraitu bear Irigoien esanari, egin dezaiogun gogor anai bezala jator orrek esan duenari egun on bana opa dizutet anai arreba danari.

### Andres Narbartek

Gaur Iruñera euskaldun askok norla eman degun pauso Gayarre onla bete dalakoz poztuta nago ni oso. Euskera xarra lurrin dago-ta gora bear degu jaso, oraindik bera nola baitegun Euskalerrri'ko guraso.

### Mikel Arozamenak

Lendabaiziko goratzen ditut emengo maiburukoak ok paperetan jarriko'ituzte guk emen esandakoak. Pozaz beterik jua dituzten onuntz etorritakoak gora Iruña maitagarri ta euskaldun biotzekoak.

## Ezkurra zapaldu naiean

Erderaz ta euskeraz bederatzi puntutan berrogei bertso dauzkit nik nere asentutan. Memoriz aritzen naiz ni oien kantutan; ez Ezkurra bezala, papera eskutan. Aditu t'ondoan ez artzea gogoan... Pensatzen ez nun zanik olakoik munduan; neri aztuko zaizkit kanposantuan.

Ezkurra: ola porfian deus ez gera ari; amorioz kar zagun nai bozu elkarri; prendaik artzen eztioguleik batek bertziari. Si quiere usted a Juarbe, y sino a Ilarregui. Bide erdire etorri, testigua karri, zein giran ongi ari, kopletan elkarri. Siñalatu egune; ta torriko naiz ni.

Puntuak ere, Ezkurra,

elegi detxazu; bat, bi, iru, lau bostian, seiean, nai bauzu; zazpi, zortzi, bederatzi, amar or daukazu. Era ona daukazu, nai zunik in zazu, ortxe kus dezazu, eleji dezazu, aditu nai bauzu, nere faltarik beintzet izango ez dezu.

(1) Trabesas izain gerala, Aren aldekoak, gaztigatu dirade nere kontrarioak; ez nago, ba, ni ere batee gabekoa; ba-ditut bai nik ere naiko metituak, gizon adituak, diruz aunditsuak, eta aberastxuak, zuk izain tuzun bañan geiagoxokuk.


(1) Azkeneko ontan: Trabesak izain dirala bear luke.

Berso auen egille ausarditsu ta berokoi-xamar ori, nor ote zen? Antonio Auzarra, ¡Artzai gizagaxoa! deitu giñun bersoen egille bera zez ote dugu? Au gogoratzen zait, berso auetan ere bi aldiz aditzaren aurreneko izkia ark bezelaxe jan egiten dulako; ikusi, ta etorri bearrean, kusi ta torri egiñez. Gañera Polainen bersotan bezalaxe auetan ere Ezkurra'ren zirikalari agertzen zaigu; iruetan euskera erderazko itzez, bearrik gabe, nasten digu; ta azkeneko auetan Ezkurra, Juarbera edo Ilarregi'ra deituz, bide-erdira egiten dio dela, agi denean. Ark Luberbe deitzen dun erria Larunbe balitz, ortik Ultzama'ko erri aietara, Ezkurretik bezalatsu izango litzake. beren bide-erdia.

Irakurleok oartuko ziñeten goiko berso auetan, azkeneko bi eskutetan amairu berso agiri dirala, amalau bearrean. Buruz oiek ikasi zituenak berso bat atzentzea ezta arritzekoa, bukaera berdiña, iru-lau aldiz daokala ziranean. Nik eman zizkidaten bezala ematen ditut. Uts ori, bersolariarena ez baño ikaslearena izango dela nago, bersolaria, adirazten dun bezin buru onekoa izanik.

Berso auek, gaurko, gogo betegarriak ez ba-ditugu ere, gure bersolari bikañenei ere atsegin izango zaizkien ustean bialtzen ditut.

INTZAR DAMASO AITA  
Txile'tik



## GURE IRAKURLETATIK BATEN KARTA

Noizen bein euskeraz ongi idatzitako kartak artzen ditugu, eta toki eskasarengatik ezditugu argitaratu ahal izaten. Denei eskerrak, eta karta bat bakarra izaten bada ere, gaur argitaratzen dugu, gure karta-idazle guziei agur bero bat bialduaz.

"Leitze, 29-1-1967.

Principe de Viana-ren zuzendari, egille, idazle ta laguntzalle guztiei, nere esku biotzekoena ta zorion be-roena, gure euskerazko orri edo al-dizkari polit eta atseginarengatik, ain ongi antolatzen dezuelakoz.

Zentzue galdu ezdugunok, eta gurea delako ain maite izanda, izkuntzaren alde lan eder eta garrantzitsu ori pozgarri zaigula, ezin dugu ixilik eduki.

Urte betetze ontan berriz ere eskerrik asko, zorionak, ta aurrera beti!

Agur sutsu bat denari.

Yone Azpiroz'tt.

## Gure lurraldetan agertu dira lorek

Uda Berri loratua laxter degu emen. Uzten ditu Neguak petralkerik katen. Berriz jaiotza dator; bereala da gañen. On ona izan dedilla Arren t'arren. ¡Amen!

Sasoi obiagorik ez da inoiz sortzen. Bera da noski-diot-alai, bikañ, garden. Sakon biotz barrunian zaigu guri sartzen. Saia gaitian zintzo beñere ez galtzen.

Negu ta Uda-Berriya, aben bion tarten ez ta bai asko dira tamalez geienen. Batian, Negua gogor berandu mintzatzen. Bestian, Uda-Berriya goiz xamar azaltzen.

Ta...! ze ondoren miñak ekartzen dituzten! Uda-Berriya indarrez dago ia lertzen. Neguak berriz setaz ez du oñik kentzen. Jaiotzen dira lorek... ¡laxter ditu illtzen!

Neguan zan bitartian lainok zeuden gellen. Bañan poli-poliki dijuaz noizbait alden. Odei gizen ta illunak dira denak eten. Uda-Berri ederra agertzen da aten.

Lotan bazegon ere denbor taldia luzen, jenet! jeikitzen zaigu Jesus pixtu antzen. Asiko da bat-batian zoragarri jantzen. Betor Uda-Berriya, betor ordu onen.

Lore potok guztiyak asi dira lertzen, ta eguzki argi biziya zaizkigu asetzen. Txorik nun nai dabiltza zoriona kantatzen. Baso zugaitzak dagoz ostuaz ornitzen.

Uda-Berrin langilliak ari dira lanen, lorez-lore erliak eztiya prestatzen izan dezagun gero Neguan gozamen. Uda-Berriya dator pizkor bere biden.

JOAQUIN ALDAVE

# MENDIZ

## ILUSIO AUNDI BAT...

Neskatx gazte bat iltzera zijoan. Bere lagunak negarrez daude. Zergatik negar egiten dezute-die neskatxak. Negar iltzera nijoalako? Nere bizitza ez da bizitza utsa izan; beti izandu det ilusio aundi bat; egunetik egunera geyago izateko ilusioarekin bizitu naiz; alegiña egin det projimoari laguntzeko; divertitu naiz, bañan Jaungoikoaren grazian; lagun artean, solas ederretan, umore ederrean, irri ederrak egiñez... bañan beti Jaungoikoaren grazian. Zergatik negar? Eriotza neretako zeru'ko atea da.

Mundu ontan denok bear degu geren begien aurrean zerbait aundia: ilusio eder bat, eta egiten degun gutzia, orregatik egin.

Bear degu jakin zergatik bizi geran, zertarako. Iru erregek bezela, izar bat, eta segitu beti izar orreri. Bañan ez edozin izar.

Dirua? ez da egiazko izarra; denon ametsa, bañan aunditasunik gabea. Ez diruak personari, baizik personak diruari ematen dio aunditasuna.

Dibersioa? utsaldi aundi izanen dezu zure bizitzan gauz ortaz bakarrez oroitzen bazera.

Bat geyago besten artean? «montonekoa»? Zure ilusioa equipo'ko jefea izatea; etzera konformatzen bat geyago izanez; nai dezu distingitu, besteak baño geyago izan. Ori bera egin bear dezu gauz guzietan. Ilusi orrekin bizi bear dezu: egunetik egunera geyago ikasi, zeran baño piska bat geyago izateko deseoa; beti «mejoratzeko» ilusioa. Gizona da gauz guzieren erregea; gauzak egin dira gizonarentzat. Ez gauzen mutil edo mrorri, baizik bizi beti pensamentu aundiarekin.

Badakizu Fernando Ametzetarrak zer egin zuen apaizak ollaskoa maiera atera zuenean: fuenteri buelta eman, eta bere alde mamia, eta ezurrak apaizarendako.

Utzi alde batera «izar»-tiarrak, importantzi gutiko gauzak, eta zure aintziñean «izar» aundi bat, ilusio eder bat: beti geyago izateko ilusioa.

Bizitza utsa, bizitza tristea; bizitza utsak, eriotza tristea. Ikasi neskatxa arrek emandako lezioa.

## EUSKAL KIROLAK

Nork erran zuen Latasa akitua zagoa? Ala iduri zuen bai bainan orai berriz indar-berriturik agertzen zaigu eta iñoren beldurrik gabe bai alajaña! Yoan den egunean Martxoaren 27'an (bazko biaramuna) Tolosa'ko plazan bere ahalmenak ongi aski erakutsi ditu, bera bakarrik ari izana da lau gontzako enbor moztu beharrak zituela (2'08 m itzulia). Marka bat jartzeko naikeria zuen, orai dela 57 urte bidaniatar Fermin Otegi'k lan berarekin egindako marka autsi beharrez. Marka jarri behar bazen bai jarri ere, amazapi minutu ta geiagoen alde atera baizion Otegi bidaniatarren utzi zuen markari. Ikus dezagun Latasa'ren lana:

Lenbizikoa 8'32 minutoz, bigarre-  
na 9'56 tan, irugarrena 11'02 tan eta  
laugarrena 9'35 tan, lan guzia, au  
da, lau 90 ontzako egurrak 39'05 mi-  
nutoz. Arrigarritzko marka omen da,  
ala diote. Zorionak aizkolariari.

### PILOTARIAK

Yoan den Martxoaren 26'ean ari izanak dira pilotan buruz buru, Tapia gipuzkoarra eta Bergara gure nafartar pilotaria. Partida au aurtengo esku uskako Txapelketakoa zen eta oraiokoin irugarren aldia zuten bi pilotari oiek elkarren kontra ari izanak direla. Gure pilotariak lenagoko bi partidak galdu bazituen oraingo irugarren au ere galdu du, emengo pilotazaleek etxalartarraren baitan uste osoa zuten bainan gauzak makurtu dira. Partidaren asmentan eta amargarren tantoraño Bergara aintzinean yoan zen 10-1 bere alde zuelarik, gero gudukaldiak aldakuntza ikaragarria izan zuen. Tapia bizkor zagon eta sasoi izigarria erakutsirik, berdindu eta zuzen zuzenean 16 tantoraño yoan zen, gero etxalartarrak 11 garrena egin zuen, bainan azkoitiarra erne zabillen eta falta zituen sei tantoak eginik, partida airez aire irabazi zuen 22-11. Tapia izigarria agertu zaigu eta olakoetan burua makurtu behar beti izaten baitira Yaunaren Yaunak.

Zorionak irabaztaleari eta bai galzaleari ere, Aurrera Martzelino!

## IKASI, MIKASI...

¿ERLEJU EDO PATETA PUSKE...?

—Gure Mielantonek, ¿zer dio?  
—Oi bera esateot nik, berorrek zer dion.  
—¿Zetaz?  
—Atzoko sesioan esan zein, erlijioa bear-bearrezkoa dela. Ta, ortaz konforme nao ni. Jainkoa, gauza guzieren egilea bada, arrazoiezkoa da Bera maitatzea ta Bere legean bizitzea, au da, jarri zizkigun egin bear —obligazioak— betetzea.  
—Or datza erlijioa.  
—Baño, nik bezin obeki jakiñen do berorrek, zenbat erlijio klasekoak deen mundu ontako gizonak. Emen katolikoak, an protestanteak, autzao zismatikoak... ¿Berdin ote da eozin erlijio oitaz siniste egitea?  
—Ez da berdin. Batek baietz eta besteak ezetz esaten badute, biek etzaketegite esan.  
—Bakotsek badio berea obeena dela, ¿nola jakiñen dugu zeñena den egizkoa?  
—Mielanton, ¿erlejuik badozu?  
—Ara emen.  
(¿Kiski, kaska; kiski, kaska...!).  
—¿Au pateta puske! ¿Ongi gosaldu bearko dezu au eramateo...!  
—Mutill nitzela, Irurzuna etortzen zen oyulari batei eosi nion ¿jazpi peztan!  
—¿Orain, zenbat urte?  
—Berrogeita bost, eo berrogeita amar...  
—Geiegi irauu do.  
—Eumin, ordu erdi on bat atzea eo aurrea eñen do, baño beñere ez da gelditzen.  
—¿Ta, autoa arpatu bear dezunean?  
—Punthun jartzeot, "radio"koan parin.  
—Radioak edo telebisioak ordu egizkoa —ordu ofiziala— ematen dituzten bezala, zure arrazoiek eta Eskritura Santuak —non Jaungoikoak Bera itz egiten digun—, esango dizute zein den erlijio egizkoa. Arrazoi ta Eskritura Santua lagun, ikusiko dezu nola Jaungoiko den gauza guzieren egilea, nola Jesukristo den gure Eroalea; nola gure anima oso gogzkoa eta illezkorra dela, ta ze egin bear dezun salbazioa iristeko; ze sakramentuak artu bear dituzun, nola oitotza egin bear dezun, eta ze mandamentuak gorde bear dituzun. Borondate onarekin eta azterketa pisko batekin, edozin gizonak ekusi dezake erlijio katolikoa dela erlijiotan egokiena eta, bakar bakarrik, EGIZKOA.  
—Uste ortan neon ni orain arte, baño Konziliotik onea ¿ez dee ba asi esaten katolikoak, protestanteak eta zismatikoak anaiaik generala, eta utzi bear zaiola bakotxek pakean bere erlijioan...?  
—¿Utzi bear zai...! Esan nai do, etzaiola galerazi edo indarrez sartuazi bear erlijio batean, beyek ukullun sartuazten deen bezala. Deela gizonak bere uste onean deen erlijioan, baño bakotxek egin-bear (obligazioa) du azterkatzeko zein den egizko erlijioa. Ta, bein jakiñen gañean egon ezkerro, erlijio orreri siniste egitea.  
—¿Noiztik eta zeengatik aldendu giñen katolikoak, protestanteak eta zismatikoak?  
—Istori luze ta negargarria da, Mielanton, jakin nai dezuna. Obe da ortaz ez gogoratzea ere. "UTZI DEZAGUN ALDE BATERA —esango dizut JUAN XXIII garren Aita Santuak bein esan zun bezala— ETA ¡ELKARTU GAITEZEN!, ZERGATIK ARRAZOI GEIAGO DIRE ELKARREKIN BIZITZEKO, BATZUK BESTEENGANDIK ALDE BAÑO...!" Len aipatu dezun Eliz Katolikoaren Batzar Nagusian —Batikanoko Bigarren Konzilioan—, gotzai guziak aitortu zuten baldin gure aldetik noizpait izan bazen erru, edo kulpa. Bein edo beste, gure aldetik obispo on bat gogor xamarra portatu baizen, berak ere etzaketegite esan arrazoiekin aldetu zirela. Kaso lotsagarriak alde batera utzita, esan dezakegu geyenetan txoro on bateri segitzeagatik aldendu zirela Erromako Elizetik. Ejenplo batekin ekusiko dezu. ¿Badakizu zeregatik ekarri zuten apez protestantea Naparroko erri koxkor batera?  
—Berorrek kontatzen ezpadit...  
—Kontatuko dizut, kontatu zira den bezala. Orain lauetan ogei on bat urte, ez dakit zeregatik, kendu omen zien obispoak asko maite zuten apez. Erri artako alkatea ta beste bi gizon, joan omen ziren Iruñera, apez eske. Aiek baietz, eta obispo jaunak ezetz, ¿ze egin zuten gure gizonak? Donostira juan eta japez protestante bat ekarri omen zuten! ¿Ta sermon ederra bota omen zien tabernako leitotik...!  
—¿Gero?  
—Gero, zortzi egun baño len, konpondu ziren gauzak, eta orain ez dago Naparroan erri koxkor ure baño oberik.  
—Berorrek dionez, kasko goorrekoiak izan gera beti gizonak.  
—Orain esan dezu, Mielanton. ¿Kasko gogorrekoak! Orrengatik, len esan dizuten bezala, utzi bear giñuzke istori negargarri oiek, eta ¡elkartu bear giñezke Jaungoikogan eta Jesukristogan sinisten degun guziak!  
—¿Ta, beste erlijio pagano oitan bizi deenak, salbatu daitezke?

## Errekalde zenari oroimena



Errekalde zena Gipuzkoako, eta Astibia, Naparroko, Iruñeko Zezen Plazan, Sanpermiñetan egin izan diren apustu batean. Errekalde zenak Jaungoikoaren aldamenen dagon Tokitik aurtengo Aizkolarien Txapelketak lasaiki ikusiko ditu. Berak «Betiko Txapela» irabazi zuen. Goyan Bego, Azkoitiar aizkolari gaztea. Beraren bitartez Jaungoikoak begira ditza la gure euskal aizkolariak.

### AIZKOLARIEN TXAPELKETAK

Aurten bi Aizkolarien Txapelketak eratu bearrak dira, bata Donostian, datorren Maiatzen, «Euskalerriko Aizkolarien Txapelketa» deitua izanen dena, eta Donostiko «Atracción y Turismo» Bi'tokiak antolatua; bestea, Iruñen, Sanpermiñetako Bestetan, «Españako Aizkolarien Txapelketa» izena artuko duena, eta Iruñeko «Prensa Elkartasunak» eratua.

Gure Aizkolariak, naiz Naparrak, naiz Gipuzkoarrak, badaukate aukera beren ahalmenak agertzeko! Latasa, Astibia, Berekoetxea, Naparroitik, Zerberio, Arria eta Polipaso? Probintziatik, azaltzeko prest egonen direnik ustetan gera. Ia aurten zein gertatu garaillet!

## Gaurko sozialismoa aurrerapen bat da

### Orain dela urte batzuetakoakin ezin diteke naasi

Idea edo pentsaera berri bat agertzen danean, ez ditu alde guztietatik begiratu bear goxoak artzen. Berridire bereala azterketa estu ta gogor batera sarrazten dutenak, ia zerbait txarrik arkitzen ote dioten.

Geienetan izaten da utsen bat —nola ez!— eta alde batera uzten dituzte gogorapen berri oiek: «Oso izatekotan guztiz oso, autsia egoteko txulo txikiena aski». Onelako epailleentzat aurrerapen onik ez da; beti txulo txikien bat, akats txikien bat arkitzen baitote. Uste dute gañera askotan ideetako mundu onetan dena lenagotik esana dagola era batean edo bestean: «Eguzkipean ezer berririk ez».

Baño dudik gabe mundua aurrera dijoa. Iakintza guztietan aurrerapenak izaten dire, naiz txulo txiki-  
ren batekin.

Sozialismoari ere au gertatu zitzaion. Agertzearekin bat izandu zituen etsai bizkorrak. Asiera artan, Engels eta Marxen garaian, bazituen —ori ere esan bear da— uts aundiak. Uts auek arpegira botatzen zizkieten kontrarioak, eta orduan marxistak beren burua defenditzeko uts oietantxe indar aundiagoa jarri zuten: gerraren bearra dela, bakar-jabetasunari, ta elizari ezezkia dela... Leninen eta Errusiko erreboluzioaren garaik ziren. Bi posture auek banatzea ezan errex. Alde batetik kapitalismoa, ta bestetik komunismoa; amorratuak biek. (Komunismoa sozialismo amorratuago bat besterik ez da).

### DENBORAREN IKASKAIA

Marxen ideak ordea gizaldi onen asieran zabaldu ziren, eta geroztik

ur asko igaro da munduko zubipeetan. Denborak agerian jarri du pentsaera aiek, utsekin batean, asmatuak ere bazituztela makiña bat gauz. Askotan gertatzen zaigu alde bat defenditzen asi ezkerro bukaeraraño, dakazkin adar eta zaiñ guztiekin defenditu bearra. Orrengatik eztabaidan sartu gabe dagonak bi aldeak garbirogo ikusi dezazke. Bizimoduak amaika aldiz erakusten digun gauza!

Onela gaurko sozialista ta komunista asko konturatu dire lengo komunisten egoera arrieskatuegia, amorratuegia zala. Emen sartaldeko nazioetan berriz, naiz European, naiz Ameriketan ikasten ari gera sozialismoak gauz onak ere baditula. Erussian komunismoa «moderatzen» ari dela diogu guk. Aiek berriz sartaldeko nazioetan kooperatiba ta beste ameika iokabide «sozialista» sortzen ari zaizkigula. Begi-aurrean daukagu gañera naziorik aurreratuenak erdi-sozialismo batera biurtzen ari dirala.

—Zer esan nai dun onek?

—Badirela sozialismoan zenbait aurrerapen kapitalismoan etzeudena, eta gogoan eguki bear direnak atzeratuak ez izatekotan. Oraindik ordea arkituko giñuzke alde batetik eta bestetik, kapitalistetan eta sozialistetan beren egonera extremistari eutsi nai diotenak. Sozialismoaren ezer artu nai ezdutenak, edo orain dela berrogei urte zagon lekuan eduki nai dutenak. Nola batzuek ala besteak denboraz kanpora daude nere usteetan.

(jarraituko zaio)

«PAKO ZABALETA»

—Bai. Salbatu daitezke. Oiek ere, fede onean bizi badire —ta, nere ustez, gemak izango dire, besterik aitu ezdutelako—, arrazoiak dietena ta bere erlijioan lege-betez bizi eskerro, salbatu daitezke. Oiek ere, izan dezakete nai-bataioa, eta, naiz gorputzarekin ez, animarekin Jesukristoren Eli-zekoak dire. Baño, jakin dezazu bein ta betiko: ERLIJO KATOLIKOA DELA, BEREZ ETA, BAKAR BAKARRIK, ERLIJO EGIZKOA.

A. ASTIZ ARREGI

# ERRIZ-ERRI.



## IRUÑA

ARALAR-MENDIKO JONDONI  
MIKEL GOIINGERUA  
IRUÑEN

Urtean bein, bere Aralar mendiko Elizatik ateratzen da Deun Mikel aingerua Euskalerriko zaindaria, Naparroako herrietan barna bisitak egitera. Ibilaldiari asiera ematen du gure aingerua, bazko biharamuneko leenbiziko Astelenean Iruñeko agerraldiakin.

Xede hori betetzeko jua den astelenean Apirillaren iruan, oitura zahar bat betetzen zutela iruñar, zineko iruñarrak, bildu ziren Takonera deritzaion toki ederrean, gure zaindariaren irudiari ongi etorria eta merexi duen ohorea emateko asmoarekin.

Ots, zazpi t'erdiek urbiltsu izango ziren, nun Miluze-ko bidetik, kartzalean pausaldi llaibur bat eginda, agertu zitzaizen yendeari Aingeruaren eramatzailer eta begiraleak Takonerako zubiaren aldamera, orduan aren zai zegoen Miserikor-diako Aingeruatxokin (Angélico de la Meca), elkar musu bat ematen dute yendeketa guziaren aintzinean.

Gero segidan abiatzen dira guztiak, agintariak buru S. Nikolas-ko elizara eta hemen pasten du leenbiziko gaua; baño leentzago takonera-ko jardien erdian «requiem» bat erretzazen dute apaizek; aspaldiko dengoretan lapurkeri eta itsuskeri izigarritzko bat egin zuten gaixtagin batzuen animen alde.

Bigarren egunean eta Irudi sainduaren gerizapean egiten da Eliznagusian (Katedralean) elizkizun aipagarriena meza nausia predikatuakin; kaputxino batek dauka aspalditik bere gain sermoia.

Aste osoa darama Mikel aingeruak elizez-eliz, etxez-etxe, eri eta xahar-



rak bisitatzeko, gisa huntan artzen du iruñarren omenaldiek.

Bere garaia igaro ta, Aralar-ko Mikel Aingerua etxeratzen da Igan-de eguerdi irian, Iruñe bazterreko lur eta larreak bedeinkaturik, eta artzen du sarrera egin zuen bide beretik, bere betiko egoitzaren itzulia, iruñar fededun suhar zenbaitzuek lagundurik Miluze-ko zubiraño.



## BAZTAN

ERREGEBIDEA

Baztanek dermio aundiak ditu, amalau erri eta auzo aunitz. Auzo oiek errietatik urrun, bizpauru orduko bidean oñez eta bide zabalik gabe. Gaurko egunean gisa ortan bizitzea gibelapen aundia da, baserrietara bide zabalak arras beharrezkoak dira, oraiko bizi moduak orrela agintzen du eta kostatzen dena kosta denborarekin eginen dira. Ba-

lloko Etxeak asmo onak ditu eta Diputazioaren laguntzarekin pixkaka pixkaka Baztan'go auzo guziak erregebidea izanen dute, denen onerako eta batez ere Ballararen aurrepenerako.

Aurtengo udaberri unta Bearzun ta Orabide'ko auzoetako erregebide berrian lanak asi beharrak dira. Orai berriki Balleko Etxean bilgura izan dute eta bai gauzak erabaki ere, batzarre ortan bide-egile aunitz bai omen ziren lan oiek artu nai zituztenak eta elkarren artean norgeiagoka ari izanak dira presu-puestoa ondu beharrez eta azkenean, Orabide'koa Gazteiz'ko batek eta Beartzun'goa Iruñe aldeko batek, lan guziek beren gain artuak dituzte. Beartzun'go ori 3.080.000 peza kostako omen da eta len martratutako leku beretik egin beharra da, au da, Elizondo, Berro, Agozpe ta Beartzun'go Anzabordaundiraño bospasei kilometroko luzetasunean. Berdaritz eta Belaun'go mugak urrunko gelditzen dira oraindik bainan lenago baino urbilxago. Beartzundarrek badute aurrerapen, oñez ordu t'erdiko ibilaldi ori orai utsean geldituko da naski.

Orabidetarrek ere erregebide ortaz kontent dira, alderdi ortan baserri aunitz ustutzen ari dira, bainan erraten dutenez bide oiek egiten badira yendea ezta bere lekutik mugituko eta egonen da, or ageri da baserriek iraunazteko bide zabal oiek zein beharrezkoak diren.

Oraindik Baztan'go auzo aunitz erregebiderik gabe daude oien artean, Aritzakun, Urritzate, Irurite'ko Erreka eta bertze zenbait, bainan diotenez denak egin beharrak omen dituzte.

IZETA

## OSKOTZ (IMOTZ)

«Principe de Viana» artzen dugu ta bere bidea ederresten. Baño orain gure gain dago erantzukizuna.

Orainaldian euskeraren lanbideak zaildu egin dirala esanez baztarrara joaterik ezdaukagu. Lengandik gure izkuntza baztarreko errietara eta gendaki lanoetara bildurik artu ginun, baño orain ok ere ziudadera begira jartzearekin lengoaren gainka lanbide berria daukagu: ERRIEN

IRAUPIDEA.

Baldin errietan badago izkuntza, errietan oitura, oituera zarrak, eta errietan gure izpiritua ta errietasuna, erri oiek gordetzeko zerbait baño geixago egin bear dela agerian dago. Erriak, erri osoak eta ez famili bakar batzuek, dira gorde bear diranak, beren izkuntza, oituera ta guzi. Ori baditekela, irabazi aundia dela adiazki bear zaio erriari, ori egiten bada Naparroak ezduela berdiñik izango. Naparroa oso aberatsa baita, naiz mendi naiz lurra oso onak baiditu ta erri txikiak mesede baitara ontan bilkera oieak egiteko. Gaie badugula ta borondatea bear dela. Naparroan zenbat errixa ainbeste «EMPRESA» izatera iritxiko bagaña gure izpiritur zarrak eta errietasunak eror-bildurrik ezlukela gaurko aldean erdirik ere izango iduritzen zait; eta erriak ori ikas dezanean egingo du saiatzeko gogoia, gordeko dira lengo oituerak, izkuntza, errietasuna, ispiritur zarra Eliz Ama Santuaren magalean bear diran eraberri guziekin ederki ixpiriturik.

GORA

# NEKAZARITZA ETA ABEREAK.



“Sagar eta udare onak ateratzeko bear dan arreta”

Eskeñia zorra dala esaten da, ta au oñarri artuaz, zorretan arkitzen gera «Prinzipe Bianako» irakurlekin...

Sagar eta udareta, zugaitzetaz, idatzi giñunean azken aldian, udazkeneko ta neguko egin bearretaz, esaten giñun, udaberriko ta udako lanetaz zerbait adieraziko giñula bere garaian eta toki ontan berean. Bear bada, berandu xamar ibilliko gera noski, zeinbait lanetarako, non da zerentzat, jakaña, batez ere udarentzat, baño oraindik esan nai giñuzen gauz askorentzat garai onean gaude.

Gure zabarkeriz garbitu gabe dauzkagun sagar ta udareak, gaitz eta ezbear aunitz izaten ditute, baiña gure artean kalterik geiena egiten duenak aipatuko ditugu.

ARRA.—Mitxeleta beltz-arre baten arraultza da. Illunabarrean, 80 arraultzetaño egiten ditu; eta banan-bana pipittetan, ale-azitan edo inguruko ostetan jartzen ditu. Giro beroak laguntzen ba dio, bi edo iru umaldi ba ditu.

FRUTU-ARBOLEN (IGALI-ZUGAITZAN) ZORRIA.—Xomorro ok ostoan atzeko aldean gelditzen dira, eta muskill berrian izerdia txurruptzen dute. Orri ok kiribildu egiten dira eta muskillak iartu. Aleak tioso kaxkarak gelditzen dire.

SAGAR LOREAN XOMORROA.—Auts margo edo kolorea du, mokoluxe-luxe batekin, Arrautza lore koskolaren barrenean jartzen du, baita lore lertzean ere ta lore asko galtzen du.

ERDOIA.—Gaitz onek, osto, muskil gazte ta aleak jotzen ditu. Gaitz au udaretan zize antzeko batek sortu arazten du, eta sagarretan ere orriak, muskillak eta ale gazteak jotzen ditu.

Orrian azpi-aldean, olio kolorezko erru zabal batzuk ateratzen dazkio, muskil txikietan berriz larrutu batzuk eta aleari tanto eta erru bekkaka batzuk, eta erru orik zartatzean, aleak pitzatu egiten dira itxura txarra emanaz.

TXANGURRU.—Buztin lur, busti ta otzetan sortu ta ugaritzen da erraxena. Arbolan (Zugaitzan) gerri ta adarrak kolpatzen diran unetan agertzen da. Gaitz au udarean baño sagarretan ezagunagoa da...

GAITZ OK NOLA GALERAZI.—Udaberri ta udarako ari gera adierazten, ba neguan zer egin esan bai zan.

Alean arra, galtzeko, D.D.T. «Lindane» edo «Malathion», olako zerbaitekin, auts-loturatan (paquetes) esaten dan bezala, intzik gabeko egunetan egin bear da, lenbiziko auts botatzea, lore zabaldun orriak erortzeko zorian jartzen diranean. Bigarren auts zabaltzea iru aste gerogo; eta irugarrena, lau bat astera.

Lore xomorroa galtze ontan, lore niniak lertzen asi baño lenago, beste autstu bat eman bear zaio, len aipatutako auts oritako batekin.

Zorrie galtzeko, agertzen dan bezin laxter, esandako auts oritatik bota, edo Nikotina duen beste batzuetatik obe. Autsketa au, azpitik gora egin bear da, batezere orritan, xomorro iltzale ori, osto ximurretan sartu dedin.

Erdoia, garbitzeko, Bordeles salda da ona. 100 l. urari naasi kg. bat auts. Ez du karerik bear ba autsak berak darama. Loren orri tartekak ongi busti bear dira. Denbora euritsuan, maiz bota bear salda ontatik. Auts loturak berak erakusten dute nola ta noiz erabilili bear dan.

Txangurrua denen, zauria arraskatzen da matarraski batekin, zura gaitz gabea arkitu arte, gero erre «Permanganato potásiko» izena dunakin, euneko bat (1%) dunakin; eta andik bi egunera, txerto ore'kin zauriak estali. Aski gaurko.

JOSEBA IMANOL

KOPERATIBA

Erriaren borondatea baida lenik bear dena, ta nai dunak badu. Etzaio guzia falta ori dunari beñizbein. Gero laguntzak billatu, diruzko laguntza ta teknika ikastasuna, al dunak alduna egiteko gogoz.

Orrelako buruzpidea asmotan zula asi zen orain iru urte eskas Oskotz'ko erriak KOPERATIBAN. Ordutik onara ezgera pobretu, len baño gauza ta ondasun geiago da emen, eta pagabear guziari erantzun zaie. Aurrera ere galga ontantxe jarrai ezkerro denbora luzea baño len erri ontako semeak, seme gazteak, ikusiko dute ziudadeko semeen ondoan ezdirrela segundakoak edo atzeratuak. Orrela uste dugu galduko zaiela ziudaderako espa ta ziudade-miña, emen an bezain bizibide ona iarrita.

GANERAKO ZERTXOBAIT

Erriaren gidari letradunak gertatzen gera. Gure aurreko euskaltzaleak guzia egiñik utzi zutela uste duna, oker dago. Gure erriaren berri geiago ezbadugu ikasten itu bezala arkitu gaitzeko ontan, eta itsua gidari txarra dela badakigu. Gaurko eguneraino iraun diguten oituerak eta izkuntzak zer dakarten eta zer esan nai duten iakitea beste iñori baño geiago zaigu guri. Ortze aterako baita Bibliako egi pozgarri ta bizi bizi: Christus heri hodie eta in saecula. KRISTO ATZO, GAUR ETA SEKULETAKO.

IZARRA



## SALDIAS

DONEZTEBEKO ARTXIPRESTAZ-GOKOAK XABIERREN

Epailaren 9'ean izan zen gure eguna Xabierko Gazteluari joateko.

Guk Ezkurreko ta Erasungoekin batean autobus bat osotu giñuen. Saldistik ogei ta zazpi lagun «animatu» giñen lengoz landera. Goizetik egoalditxarrak izan giñun. Belaten gora giñozila elurra ari zun. Xabierrenen goizetik aizeak eta euriak ebaiki nai zuten. Meza Nagusia bukatzerako atertzun eta geiago etzuen egin. Meza Doneztebeko Artxipreste On Franzisko Jaunak zun. Itzaldia bi izkuntzetan Aita Gaztelumen- diak egin zun. Meza ondoan bazkal- tzerara bitartean Xabierko Gaztelua ikusi ta bere istoriaren berri zerbait ikasi. Gauzarik baliosuena Gurutze Santua iduritu zitzaigun. Orretaz esaten dute San Franzisko Xabier il zanean izerdittan jarri zela eta eskuñeko bulari aldetik odola atera zitzaiola. Oraindik olako zerbaiten señaiek nabari zaizkigu. Atsaldeko iru eta erdian guretzat bakarrik geuen elizkizuna euskeraz. Bukarera bere erlikiari muñ emanez atera giñan etxe aldera, beste batera arte esanez.

# LEIZAKO GORABERAK



Negu bizian arkitzen giñanian, an Eguberri garai artan izan giñuzen jai galantak; baten Yeus jaiotzeko bezperan erriko geienak beren etxetan bildu giñanean gure mutil neskak kalez kale ibil ziran biotzak xamurtzen beren kantuekin.

Elizfunzioak bikaiñak izan ziran; gero Errege bezperan berriz urtero bezela Erregeak etorri ziran. Ango bulla, anga zalapartak! umetxoak ixilxil arrituta...

Geroztik igaro dira egun otzak, illunak, yendeak beren lanetan jarraitu du ta berriro etorri zaigu udaberria bere argitasunarekin, bere lore, aize goxo, usai berezia ta giro onakin. Alaitu zaigu Aste Santua. Aurretik presatu gera ongi, sermolari onakin, ta egun batzuek igaro ditugu pensamentuak Goyan jartzen, eta bukaeran ona eman zaio Elizako abestu (kantu) saio batekin.

Ostiral Sanduko Arratsaldeko zazpitan Leitzeko Abeslari edo Kantari Taldeak Kantu Santuen Saio polit bat eman zigun, Diputazioaren «Prinzipe de Viana» Elkargoak lagundua, eta Florentzio Irurtia yaunak zuzendari izanik. Abestiak (Kantuak) Victoria, Otaño, Palestrina, Iassus, Eslaba, Dubois, Mendelson eta Hendelenak izan ziren, eta Txalo ak ausarki entzun zituzten gure abeslariak. Aipamen berezi bat merezi dute Carmen Perurena, Luisa Lazkano, Jose Jabier Mugika, Tomas Alkutz, Jose Ignacio Azpirotz, Mikel Larko eta Kandido Azpirotz.

Denak arrituta gelditu gera gure mutil ta neskak in duten lanakin, ta zer egoki jantzita zeuden...

Bejondeizula Plorentxio, bejondeizula; Eskerrak zuri, ta zure lagunari igaro dugu ordu goxo bat beñere aztuko etzaiguna.

# ZURETZAT; NERETZAT; BIONTZAT...

Goazen berriz alkarrekin? «Besteak bizitz erraza eta deuseza daramatela? Ortaz beraz zure bizitz ori izan bedi beti bizitz oso, barrerago, bete-bete bat».

«Besteak» esatean, «mukulukoak» esan nai duela garbi dago. Ok, bizitz erraza eta deuseza daramate. Maldan beiti, gainbeera doazi; betik gora baño aisago baita. Zerbait-zerbait (batzutan aunitz) nekaten direla, ezin uka, egia: bortxatzen direla, agiri da: baño oken bortxatzea eta nekatea, llabur-llaburra eta gogoak eskatzen dabena belaxen ekartzalea da. Gerokoaren ustean luze aritzea, ez da on okentzat. Nekearen ona (naiz itxurazkoa), bortxatzearen saria (gezur-sari izanik ere), lenbailen eskuratu nai dute: gaurkoaz gaur iabildu nai, iraupenakoari begiratu gabe.

«Ain ogi ona emanen luken gari pikor dirdiratsua lurpera, ustel-dedin, botatzea, ez da erokeri?» diote orrelakoak.

«Neguan gari pikorra lurpera botatzeko erokeririk ez balitz, udaran ez genuke gari ta ogirik», erantzun bear orrelakoeri.

Gure bizitza, zein llaburra dan! Luzea dala idurik ere! Eta bizitz llabur untan gari au (gari ori, eder, dirdiratsu au) erein, sortu, azi eta zitudun bear!

Ez da bat batean egiten dan gauza gizona. Norbera landu gabe, bortxatu gabe, bere buruari aunitzetan uko egin gabe, ez dator bear bezalako gizonik.

Emengo bizitza, laisterka ta igeska bezala doan bizitz bat da. Bizitz au nola bete iakinki, eta utsik ioatera utziko dugu? Bizitz untan, zitu on ta aberats bat dakarren gari eder bat izatea, eta sabaiko zurtean etzanik, errautsez estalita egon? Iñioiz saiatu al gara gari eder eta mamitsu ote garen iakiten? Zurtean errautsez estalirik ote gu? Galdeera au ez gaizki artu, adiskide: biondako balitz bezala doa; baño nere buruari bakarrik egin bear niokela nago: ez naiz nor zure barrenean sartzeko.

Dena eskure etortzea nai badut...; ezti goxoa neretzat, eta ezten zorrotza bertzeendako...; beti errazenaren atzetik banabil...; nekea gaitzes badut...; iñor onean laguntzeaz axolik ez badut...; bildur ni ez al noaien zurtean etzanik, nagitasunezko erraztasunean goxo goxo, bizitzan bera irristaka.

Eta, badakizu, maldetan bera irristaka... aurrak bakar bakarrik: berriz ere; aurrak bakar bakarrik; beren ipurtakoak xehatu arte.

Aurtzarotik atera eta adinean sartu geran ok, aurkerietan irraiki bear? Zure erantzuna zein dan aski ongi badakit: «Bizitzan goiti: al-dapan gora» diozu. Zail bazaitzu ere? «Zail bazait ere». Zere buruari bortxa egin bear badiozu ere? «Nere buruari bortxa egin bear badiot ere». Gezurrezko adiskide filus oiek bazterretik irri egiten badatzute ere? «Gezurrezko adiskide guziek, batean iarririk, irri egiten badidate ere».

Iraun ortan, adiskide, ibili ta ibili, azkenean zu garaille!  
«IBARRONDO»



## IRUÑEKO OSTATU BATEAN

Bazkari on bat egin behar diat:  
—Buen comida querer yo, eh!  
Plater txikiz betetzen diote maia;  
amar beintzat bai, edo geiago.

Gure gizona begira eta jaten ez!  
—No le gusta al Señor? —esaten dio serbitzariak.

—Si no traer pronto comida «muestras» y todo sí que te como!

## SEVILLAN

—Saldan euli bat! Zer buruzpide da etxe ontakoa?

—Mesedez, ixilago! Denendako eztaukagu ta...

## ZARAGOZAN:

Usoa jaten ari, ostatuan. Arria bezain gogorra dago.

—Aizu, nundik duzu... uso au?

—Plazatik. Gazte gaztetxo da.

Eratzuna kentzen dio ta nun esaten duen: «Biar agertuko gera. Napoleón».

—Au ez da aragia. Zapeta zolak ba dira biguinagoak!

—Jauna, badirudi denak elkar artu duzuela gauza bera esateko...

## MEDIKUAN.

—Ez dakit zer daukaten! Ezkerreko anak min ematen dit...

—Adina, adina...

—Eta eskubiak ez al du adin bera?

## ELIZAN.

Aur txikia lenbiziko aldiz eremana. Meza erdiko garaia. Txilin otsa:

—Aurtxo! orai eldu da Jesusito aldarera!


—Ama. Bizikletan ibiltzen da?

OKERRAK BIZKAR MAKURRARI:

—Zer! Goizetik kargatuta?

eta besteak:

—Goiza izango duk, ire etxean ez delarik leio bat baizik idekirik!



empiece por  
**NAVARRA**

# Asi Naparroatik

Txartel edo Iragarri au Naparroko Diputazioaren «Turismo, Liburutegi eta Erri-Yakintzako» Zuzendaritzak ager-erazia da, gure Lurraldea munduan zear eta bere zabalean ezagun-erazteko asmoz.

Lenengo Txartelen eta Esaera Laburren (Slogan) Sariketa bana eratu ziran, eta gero Sariketa bakoitzaren lenengo geratu ziranekin Iragarri bat osatu zuten (goiko fotoan ikusten duguna).

Fotoa kolorezkoa da, eta ortan Oliteko (Erriberri) Gaztelua, eta Naparroko Erreinuaharraren Banderaria bere eskuineko eskuan gure Napar bandera maitea duelarik (oial gorria eta kateak) ikusten dira. Azpian Slogan edo Esaera labur zorrotza «ASI NAPARROATIK» leitzen da.

Bi klasetako txartelak barreatu dira: Paretako txartelak aundiak, eta postaleko txartelen modukoak. Auek autobus edo automobilletan leioilletan eratsiki edo atxikiak eramateko egokiak dira. Besteak paretetan jartzeko aukerakoak.

Beste pauso eder bat gure Naparroa mundu guzian ezaguna izan dedin!

# Euskaldunak Euskeraz

Gure izkuntzak orain arte, ogeigarren gizaldi ontara arte irauin badi ainsteko «ekaitzi»ren zear, ta beti aurrera ekin ba-dio, gu, «mende-berriko» gazte euskaldunok, nolata aztu? Nolataz lo egon? Euskaldunok, euskeraz mintzo bear degu. Ta ori gutxi dal Euskerari, erro-erroaño, kultura sartu bear zaio. Eta orduan, orduan bai, «zuzaitzak, beren frutuetatik ezagutu ta bereixten badira», erriak-ere, beren izkuntza gatik ezagutuko dira.

Jatorri bateko izkuntzaren inguruan, ainbat adar sortu duanean, aldaketa bakoitzak kimu berri bat dar-ma berekin. Orra, adibidez latine-tik sortu diran adarrak. Eta adar oiek ez dira orri edo orbel berdiñez jantzi. Erderak berak-ere, orra aldaxka nabariak, erri mintzoeran beintzat; Andaluzi ta Kastilla aldean, ez da berdin itz egiten, ta gutxiago Mexiko ta Arjentina'n. Gauza berdiña esaten al genezake Washington ta Londres'ko mintzoeraz.

Enbor batetik orrenbeste adar berdingabeak zabaldu badira, zer esango degu, ez erroz ta ez jatorriz aideko (familiar) ez dan euskera'ri buruz? Ezpairik edo dudarik gabe, euskaldunon ezaugarriak nabarmenena, orixe degu: euskera.

Pareta baten eusleri sendoena, bere oñarria degula badakigu. Zenbat eta aundiagoa pareta, ainbat ta sendoagoa oñarria. Onek uts egiten ba-

du, ura lurrera dijoo. Euskera ez zaitu ta galdu ezker, Euskal-Erria, ez da Euskal-Erri. Bene-benetan garrantzi edo inportantzi osoa du guretzat euskera'ren irauteak.

Orregatik, egoki ta bidezko da, gure alegin gartsuenak euskera'ren alde jartzeak; bidezko ta bear-bearezko da euskera'ren berpizte osoa irixtea.

Al izateak baño nai izateak indar geiago du. Orregatik, ekin dezaio-gun lanari, bidea latza ta aldapetsua dela begiratu gabe. Zabarkeri aundi bat ba-daukagu zorritzarrez, euskaldunok, euskal lanerako. Eta zabarkeri ori, «korapillo» ori, urratu bear da lanari jarraitzeko. Ez da orren estu ibilli bear korapillo ori...

Alperkeria, askoren ondarena da. Ta alperkeriaren korapillo ori askatu dezagun. Askatu-eziña bada, artu dezagun errege batek artu zuen erabakia, bere ezipaterekin egin zuena: zirt eta zart, lokarria moztu; ta alik eta azkarrena erdiko bidetik, bide laburren-etik jo. Itz gutxi, ta aiek onak. Auxe da denok egin bear deguna. Eta ez egon besteek egiten duten lanari begira. Denon lana da euskera aurrera eraman bear izatea. Etxean bai ta auzoan ez, ori alperkeria da. Lan egin bearrak ta «bizkara arrimatu bearrak», ez gaitzaitela bildurtu ta atzerazi.

GORTARI YON



# ARALARKO AIZEAK LAPURRETA SAN MIGEL'EN

Ez ikaratu, ezta oraingo berrie ta.

Ni bospasei urteko mutigo mukizu bat nintzela, nere amiñe zenak bazkalondoro bere ankatan txalko artzen nindun, dotriñe erakusteko, bera galtzagintzan ari zan artien, antejuak sudur puntan, galtzorrazak atzetan ttiki-ttak, ttiki-ttak, usu ta arin gelditu gabe zerabilz-kila.

Nere gogo txarra asperraldi aietan, beste mutikoak pillotakan edo fubolean zebiltzela gogoratzen! Ortaz ortzen zen nere amiñe, xarra beño bizie. Ta orduen ipui, edo ixtori, edo olakoren bat kontatzen aste zakiden, ernetu nendin. Bai ernetu ere, ta aoa zabalik dena belarri, berari begiz egon.

Olako batiere kontatu ziden San Migel'en noizpait gertatutako lapurreta bat. Gutxiz gorabera onela esan ziden:

Aspaldi aspaldi artan, Asolbizio egun batez, jendiek San Migel'dik alde in zuenien, bi gizon gaixto konfesonariotan estaldurik gelditu ziren, asmo ez oso onakin. Gaur erdien, denak lo zorroan zedela, beren tresnekin serraillak puskatu, kutxatilleko diruak eta Aingeruaren irudia artu ta, ospol iges in zuten, ixil ixil, gau beltzaren illunpien, denen oarkabien.

Urrengo goizien, apezta meza ematera joan zenien, Aingerurik etzegola ikusi zuen ta, orduen itxilluek! Asten dire denak baztarrak iker eta iker, inguruek ikus eta ikus, baño alferrrik! Deusen arrastirik ez iñun.

Orduen gaitzigtatu omen zuten aldameneko errietara zer gertatu zen, ta bereala asi omen zen jende guzie, mendiz mend, basoz baso, aldaiaz aldaia, lapurren atzetik. «Ziñeko gurutzetik» bera zoyela, Uarte Arakil'go «Xakarix» eneko mutil bizkor batek ikusi omen zuen orbel pille bat bere kaboz mugitzen zela. Arrituk... zer ote zen joan omen zen ta on topatu omen zuen Aingeruaren irudie franko desegitiñik.

Biaramunien lapur aiek, arri bihurturik bezela, arrapatu omen zituben ezin mugiturik, eztaikit Franz'ko edo Probinz'ko mugan.

Egi ta ipui, denak naste borrate esaten zitiden nere amiñe, naski berak bere amiñarengandik artuko zituben bezela. Ta nik orduen denak itxumutxu siñestatu. Beño, egie da ta liburuetan ta Iruñeko Katedraleko arxiboan eskribiturik dauden xetasun edo detalle batzuek emen doazkizube zeatz meatz:

a). 1687'ko Uztailak 2, bi gizon, Juan Jauregi Ara-ba'ko Amurrio errikoa, 22 urteko mutil gaztea, ta Manuel Gonzalez, Santander'ko Santillana'koa, gauaz elizen sartu ziren leio batetik eta Aingeruaren irudie ebasi.

b). Egun aietan San Migel'go Ministroa Don Esteban Alegria apezta zen: sukaldeko neskamiñe Maria Juan Aristizabal ta Katalin Etxaleku. Santutegien gau pasatzen zegoen Uztegi'ko mutil gazte bat, Juan Berastegi izenekoa: au zen Uartera laixterka jexi zena, lapurretaren berri ematera ta jendie mugiaztera.

z). Ministroak gizon aiek sailka bialdu zituben alde guzietara. Bera ta beste lau uartere, Simon Goldaraz, Migel Alegria, Migel Uarte ta Migel Lakuntza, Probinz'ki aldera jo zuben. Juan Otermin, Intzeko itzai batek nuntsu ikusi zituben erakusi ta, Igaratza inguruko artzai txabola batiere arrapatu zituben bi lapurrek eta Uartera jexi.

d). Uarte Arakil'go alkatie zen Martin Juan Luzea'k auzimaira eraman zituben aitortzera (deklaratzera). Lenbizkoan dena uketu zuben; beño gero Maria Goñi, Simon Goldaraz'en andrie, giltzapien preso zudenai jana eramaten ziebenak Jauregi gazteari, maltzurkeriz edo munikakeriz, egie aterazi zion. Gero Iruñe'ra eraman zituben eta an, amazapi lekuko edo testi-guren azalpenaren ondoan, lapurrek dena aitortu zuben. Eta ona emen zertara galdu zituben:

e). Juan Jauregi, gazteena, Iruñe'ko karriketan barna mando baten gainen itxaklok ibiltzera, gerritik gora bilixgorrien, tronpetari bat aurretik bere gaixtakerie oiuka adierazten zula ta gero berreun zigorkada bizkar gainen arturik, amar urteko galeratara bota zuben, ta azkenik betiko atzerri edo desterrua eman zitoben. Manuel Gonzalez berriz, zarrena ta errudunena bezela, soka bat lepotik lotuta Iruñe'ko karriketan lotsagarri ibilita ondoan, «Takoner» atarian urkatu egin zuben; ta gorputz illari eskubiko eskue moztu ta San Migel'go elizeko leio baten gainen itxillilik jarri zuben kanpo aldetik, jende guziaren eskarmentagarri.

Etziren biguñek, alajainkoa, orduko lege ta gizonak, biguñek etzirenez!

Irakurle; San Migel'era joaten bazara, orain ere ikusiko duzu elizeko leio baten gainen, kanpo aldetik, bur-nizko sare bat: omen barnien txintxiliketua omen zuben lapurrearen esku moztue.

Ta Aingeruek urtero urtero Iruñe'ra iten duen sar-reran, «Takoner» atarian aldiro erresponsto bat esaten da, antxe bertan urkatu zuben lapur gaixoaren animaren alde.

Orrelako penitentzi ta ainbeste oitoz ondoren Jainko errukitsuek eta gure Aingeru Buruzagiek artuko al zituben bere altzoan bi lapur aien animiek.

Baldinbez!

«UARTEARRA»